

2.SEGMENTAZIOA

Gure produktua edozein adinetako pertsoneri zuzenduta dago, batez ere jasangarritasunarekiko interesa dutenentzako. Proiektu honen xede nagusia tokiko hondartzetako bisitariak eta ingurumenaren alde kontzientziatuak diren pertsonak dira, zigarro-muturrak edukiontzietan biltzean parte hartzeko prest daudenak.

Horrez gain, papera ikasleei, ikastetxeei, enpresei eta erakunde publikoei ere eskainiko zaie, beren eguneroko jardueretan erabil dezaten. Helburua da kontzientziazioa sustatzea eta pertsona horiek birziklatutako produktuak erabiltzea bultzatzea, modu praktiko eta erraz batean.

